



GOBERNU BATZARRA

2021.02.09

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia

Nerea Letamendia Beloso

Xabier Balerdi Tolosa

Patxi Amantegi Zubiria

Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko otsailaren bederatzian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. 2021eko urtarrilaren 11ko ohiko bilkurako akta onartzea.
2. 2021. urteko udal langileen egutegiak.
3. Udaltzaingoko ordezkariak egindako eskaerei erantzutea.
4. Behin betiko onespena ematea Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 6.1. San Kosme eta San Damian azpiesparruko birpartzelazio proiektuaren aldatetari.
5. Tolosako Hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko zerbitzu-kontratuaren esleipena.
6. Dekretu hauen berri ematea:
 - 2021/0057 Dekretua: 2021/58 eta 2020/59 faktura zerrendak.
 - 2021/0069 Dekretua: 2021/60 eta 2020/61 faktura zerrendak.
 - 2021/0121 Dekretua: 2021/62
 - 2021/0120 Dekretua: 2021/63, 2020/64 eta 2020/65 faktura zerrendak.
 - 2021/130 Dekretua: 2021/66 faktura



zerrenda.

1. 2021EKO URTARRILAREN 11KO OHIKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2021eko urtarrilaren 11an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. 2021. URTEKO UDAL LANGILEEN EGUTEGIAK.

Gaia mahai gainean geratu da gutxieneko zerbitzuak finkatu aurretik departamentu buruarekin adostu nahi delako.

3. UDALTZAINGOKO ORDEZKARIEK EGINDAKO ESKAEREI ERANTZUTEA.

Udal Gobernuaren eta Komitearen artean hamabostean behin egiten diren bileretan, Udaltzaingoko ordezkari sindikalek hainbat gai aurkeztu zituzten, negoziatzeko. Horren ondorioz, Udal Gobernuak eta Komiteak 2021eko urtarrilaren 8an, urtarrilaren 19an eta otsailaren 2an egindako bileretan, honako puntu hauek negoziatu zituzten, egutegiarekin batera:

- Agente lehenen lan-poltsen osaketa, ordezkapenak egiteko.
- Epaketa batera joan behar denean, orduak zenbatzeko era.
- Txanden aldaketa egiten denean beharrak daudelako, horiek betetzeko irizpideak eta protokoloa.
- Formazioa.

Horren haritik, Udalak, udaltzainen eskaerak aztertu ondoren, honako proposamen hau egin zuen 2021eko otsailaren 1ean:

- 1.- Agente lehenen ordezkapenak egiteko lan-poltsen osaketa: hilabete bateko epean oinarriak aurkeztuko dira, horiek negoziatu eta hautaketa prozesua martxan jartzeko.
2. Epaketa: orduen zenbaketa:
Udaltzainak epaketa batera deituak direnean, honela zenbatuko dira ordu horiek:
 - a) Lan egunetan bada, lan txandaren barruan behar diren orduak zenbatuko dira.
 - b) Lan txandatik kanpo bada, bi suposizio leudeke:
 - Donostian bada epaketa, 7 ordu zenbatuko dira.
 - Tolosan bada epaketa, behar den denbora zenbatuko da eta gutxienez 2 ordu.

Kasu guztietan egiaztagiria aurkeztu beharko da Giza Baliabideetako Sailean.

- 3.- Egutegietako hutsuneen betetzea.



Zerrenda bat irekiko da eta izena eman dutenen artean deitzen joango da, adostutako irizpideen arabera. Udaltzain guztiek etortzeko aukera bera izateko sistema izango da.

4.- Formazioa.

Proposatzen diren ikastaroak datozen hilabeteetan egiteko:

- Atestatu eta trafiko ikastaroa. +/- 12-15 ordu.
- Krokisak egiteko erositako programa. 16 ordu. Online egiteko aukera.
- Desfribiladorea erabiltzeko (2020an egin ez zutenak) 4-5 ordu.

Ondoren, 2021eko otsailaren 5ean, Asier Moreno Yanci udaltzainak 2021. urterako Tolosako udaltzainen asanbladak egutegi proposamenari egindako erantzuna aurkeztu zuen. Bertan, sei eskaera ezberdin daude, batzuk egutegiarekin erlazionatuta eta, beste batzuk, eskaera ezpezifikotzat jotzen direnak. Hona hemen eskaerak banan-banan:

- Epaiaketak. Tolosan ere 7 ordu zenbatzea eskatzen dute: kasu honetan, kontuan hartuta epaiaketara normalean deklarazioa berrestera joaten direla udaltzainak, behar den denbora lanordutzat zenbatzea kontsideratzen da, izan ere, epaiketa bat berehala bukatu daiteke edo bertan behera geratu edozein momentutan; horregatik, izapide judizialak irauten duen denbora zenbatzea proposatu da.
- Gutxieneko zerbitzuek larunbatean 2 agente izatea eskatzen dute, Udalak, berriz, bi agente eta irrati bat izatea proposatu zuen. Kasu honetan, hiru langile izatea proposatzen da kopuru hau udaltzainen plantilla 30 agenterekin osatuta dagoen bitartean. Larunbatak, azoka eguna izanik, lan bolumen handiko egunak dira.
- Azoka berezietan, Udaltzaingoaren esanetara egotea ez dute onartzen eta hori bere urteroko soldatan "prestasun" kontzeptu baten bidez ordainsarrietan txertatuta egoteko negoziazioa eskatzen dute. Gai hau egutegitik kanpo dagoenez, dagokion negoziazio mahai edo/eta balorazio prozesuan aztertu eta negoziatuko da.
- Udaltzain plantillaren zenbatekoaren inguruan, adierazten dute 31 agente direla, eta ez 30. Zentzu honetan, informatu behar da 2018. urteko abenduaren 10eko Udaltzarrean "Trafiko koordinatzailea" izeneko lanpostua sortu zela, baina baldintza batekin, plaza hau behin betiko izaeraz bete edo amortizatzen zen bitartean, izan ere, ordura arte "udaltzain" plaza zuen agente batek betetzen zuen eta sortu gabe zegoen "trafiko laguntzaile" lanpostua. Hala, momentu honetan, "trafiko koordinatzaile" lanpostua aldi baterako izaeraz betetzen ari den langileak jubilazio eskaera aurkeztu duenez, hura jubilatzen denean, Udalak erabakiko du "trafiko laguntzaile" plaza edo jubilatuko den "agente" plaza amortizatzea, horrela, 30 agenteko plantillara bueltatuaz.
- Gabonetan oporrak egiteko aukera eskatzen dute; kasu honetan, abenduaren erdialdetik aurrera, Eguberri egunetan, udaltzainen plantilla egotea guztiz beharrezkoa ikusten da zerbitzua modu egokian eman ahal izateko.
- Agente lehenen lanpostuak betetzeko lan poltsaren oinarriek ere beste hutsune batzuk islatu ditzatela eskatzen dute: zentzu honetan, adierazi behar da honetarako hutsik dauden lanpostuen zergatia, azterketa eta negoziazioa bideratu beharko dela lan poltsen eraketan hasi aurretik.



Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2021eko urtarrilaren 8an, urtarrilaren 19an eta otsailaren 2an egindako bileretan izandako negoziazioen ondorioz, honako erabaki hauek hartzea:

1.- Agente lehenen ordezkapenak egiteko lan-poltsaren osaketa: hilabete bateko epean oinarriak aurkeztuko dira, horiek negoziatu eta hautaketa prozesua martxan jartzeko.

2.- Epaiketa: orduen zenbaketa.

- Udaltzainek epaiketa batera deituak direnean, honela zenbatuko dira ordu horiek:

a) Lan egunetan bada, lan txandaren barruan behar diren orduak zenbatuko dira.

b) Lan txandatik kanpo bada, bi suposizio leudeke:

- Donostian bada epaiketa, 7 ordu zenbatuko dira.
- Tolosan bada epaiketa, behar den denbora zenbatuko da eta gutxienez 2 ordu.

Kasu guztietan, egiaztagiria aurkeztu beharko da Giza Baliabideetako Sailean.

3.- Egutegietako hutsuneen betetzea.

Zerrenda bat irekiko da eta izena eman dutenen artean deitzen joango da, adostutako irizpideen arabera. Udaltzain guztiek etortzeko aukera bera izateko sistema izango da.

4.- Formazioa.

Proposatzen diren ikastaroak datozen hilabeteetan egiteko:

- Atestatu eta trafiko ikastaroa. +/- 12-15 ordu.
- Krokisak egiteko erositako programa. 16 ordu. Online egiteko aukera.
- Desfribiladorea erabiltzeko (2020an egin ez zutenak) 4-5 ordu.

BIGARRENA.- 2021eko otsailaren 5ean egindako eskaeraren inguruan, batetik, egutegiari dagozkion gaiak negoziatutzat ematea, eta, bestetik, idatzian agertzen diren eskaera berriak datozen asteetan Komitearekin batera egingo diren bileretan tratatzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Giza Baliabideetako Sailari eta langileen ordezkariari.



4. BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA TOLOSAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN 6.1. SAN KOSME ETA SAN DAMIAN AZPIESPARRUKO BIRPARTZELAZIO PROIEKTUAREN ALDAKETARI.

1. AURREKARIAK

2019ko abenduaren 30eko 2019/2180 Alkatetza Dekretuaren bidez, hasiera batez onartu zen Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 6.1 San Kosme eta San Damian azpiesparruko birpartzelazio-proiektua, honako baldintza honekin:

Behin betiko onarpena egin ahal izateko, interesdunak birpartzelazio proiekturen testu bateratua aurkeztu beharko du, onartutako dokumentazio guztia jasoko duena eta gainera, Jabetza Erregistroko ziurtagiri eguneratuak izango dituena.

Akordioa jendaurrean jarri zen hogeit egunez eta ez zen alegaziorik aurkeztu, espedientean dagoen ziurtagirian adierazten den eran.

Interesatuak, 2020ko martxoaren 9an, birpartzelazio proiektua aurkeztu zuen eta jabetza erregistroko ziurtagiriak ere bai.

Dokumentazioa aztertuta, ondorioztatu zen aurkeztutako dokumentua bat zetorrela hasierako onespenean oniritzia jaso zuenarekin. Aldiz, ikusi zen ostean, 2020ko maiatzaren 6ko datan, falta zen finkaren ziurtagiria aurkeztu zuen. Beraz, aurkeztutako dokumentazioa zuzena zela baieztatu zen.

Hala, Gobernu Batzarrak, bi mila eta hogeiko maiatzaren hamabian, bestek beste, ondorengo erabakia hartu zuen: behin betikoz onartzea Tolosako hiri antolamenduko plan orokorreko 6.1 San Kosme eta San Damian azpiesparruko birpartzelazio proiektua.

Geroztik, ordea, Iñaki Soralue jaunak, BISTA-ALAI SA merkataritza-sozietatearen izenean eta hura ordezkatzuz, eskatu zuen "San Kosme eta San Damian" 6.1 zenbakiko borondatezko birpartzelazio-proiektua berriro onartzeko, akats bat baitago hasierako 3. partzelaren erregistro-finketan.

Egindako eskaerarekin batera, birpartzelazio-proiektu aldatua eta gehitu beharreko finkaren erregistro-ziurtagiria aurkeztu zituen.

Aurkeztutako dokumentua aztertu ondoren, Alkatetzaren 2020ko urriaren 1638. Dekretuaren bidez erabaki zen Bista Alai SAri eskatzea aldagakaren irismena justifikatzeko eta 4. Zenbakidun partzelaren deskribapenean hautemandako azalera-alderdiak zuzentzeko.



2020ko urriaren 20an, Iñaki Soralucek, BISTA-ALAI SLren izenean, eskatutako dokumentazioa aurkeztu zuen.

2020ko abenduaren 4an Udaleko aholkulari juridikoak txostena idatzi zuen.

2020ko abenduaren 10ean Hirigintza buruak txostena idatzi zuen.

2020ko abenduaren 11n 2020/2020 Alkate Dekretuz Birpartzelazio Proiektuaren Aldaketari hasierako onespena eman zitzaion.

Ebazpena jendaurrean jarri zen hogeit egunez eta ez zen alegaziorik aurkeztu, espedientean dagoen ziurtagirian adierazten den eran.

2. AZTERKETA TEKNIKO:

Aurrekarietan esan bezala, Gobernu Batzarrak 2020ko maiatzaren 12an behin betikoz onartu zuen Tolosako HAPOko 6.1.San Kosme eta San Damian azpiesparruko birpartzelazio proiektua. Baina Iñaki Soraluçe jaunak, BISTA-ALAI S.A. merkataritza-sozietatearen izenean eta hura ordezkatzuz, eskatu zuen “*San Kosme eta San Damian*” 6.1 zenbakiko borondatezko birpartzelazio-proiektua berriro onartzeko, akats bat baitago hasierako 3. partzelaren erregistro-finketan.

Geroztik, ordea, Iñaki Soraluçe jaunak, BISTA-ALAI SA merkataritza-sozietatearen izenean eta hura ordezkatzuz, eskatu zuen “*San Kosme eta San Damian*” 6.1 zenbakiko borondatezko birpartzelazio-proiektua berriro onartzeko, akats bat baitago hasierako 3. partzelaren erregistro-finketan.

2020ko abenduaren 11n 2020/2020 Alkate Dekretuz Birpartzelazio Proiektuaren Aldaketari hasierako onespena eman zitzaion.

Dokumentua aztertuta ikusi da aldaketak ekarritako lurzatieta duela eragina (finka bat gehiago dagoelako) baina ondoriozko lurzatiak eta gainontzeko parametroak berdin mantentzen dira:

- **INDARREAN DAGOEN EGITURAZKO ANTOLAMENDUA BETETZEA:**

EREMUA: Birpartzelazio proiektuaren eremua bat dator HAPOn zehazten den San Kosme eta San Damian azpiesparruari dagokion eremuarekin. HAPOn 5. zenbakia duen Jarduketa Integratuko Esparru bezala izendatuta dago eta 3.660 m²-ko azalera du. Dena den, ondoren onartu zen Xehetasun Azterlanean jasotzen den moduan, eremuaren azalera zehatza 3.827,24 m²-koa da, Birpartzelazio Proiektu honetan zehazten denaren berdina.



ERAIKIGARRITASUNA: Eremuko fitxa partikularraren arabera azpiesparru honetako eraikigarritasuna honakoa da:

Sestra gainean: 4.900 m²(s).

Sestraperan: 4.980 m²(s).

Birpartzelazio proiektuan betetzen da sestra azpiko eta gaineko eraikigarritasuna.

BIZITEGI-ERAIKIGARRITASUNAREN ERREGIMEN JURIDIKOA:

- Etxebizitza babestu tasatuetarako (2,2 koefizientea) (% 40,82): 2.000 m²(s).
- Sustapen libreko etxebizitzetarako (% 59,18): 2.900 m²(s).

Betetzen da.

• **INDARREAN DAGOEN ANTOLAMENDU XEHATUA BETETZEA:**

Lurzoru publiko eta pribatuaren arteko mugak eremu horretan indarrean dagoen ordenazio xehatuarekin bat etorri behar dute. Betetzen du 2013ko irailaren 24an behin betiko onarpena jaso zuen San Kosme eta San Damian azpiesparruko Xehetasun Azterlanean ezarritakoa.

• **EKARRITAKO LURZATIAK ETA ONDORIOZKOAK:**

Ekarritako lurzatiak:

LURSAILA	AZALERA (m2)	AZALERA GUZTIRA (m2)	
1	180,56	3.827,27	pribatua
2	649,05		
3	1.884,43		
4	1.113,20		
GUZTIRA		3.827,24	

Ondoriozko lurzatiak:

LURSAILA	AZALERA (m2)	AZALERA GUZTIRA (m2)	
1	1.277,48	2.477,54	pribatua
2	405,05		
3	677,01		
4	118,00		
A	1.349,70	1.349,70	publikoa
GUZTIRA		3.827,24	



• **BATEZ BESTEKO HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNAREN % 15ari DAGOKION LAGAPENAREN BALORAZIOA**

Herri-erakundeek hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioetan erkidegoak parte har dezan, hiri-lurzoru finkatugabearen eta lurzoru urbanizagarriaren jabeek doan laga beharko diote udalari batez besteko hirigintza-eraikigarritasunaren % 15ari dagokion lurzoru, urbanizazio-kostuetatik libre.

Udal administrazioak, gutxienez, orube baten edo partzela eraikigarri baten jabetza betea eskuratzen ez duenean, aipatutako eraikigarritasunaren lagapena dirutan ordaindu ahal izango da, dagokion balioaren arabera, osorik edo zati batean.

Memoriako “VII. CESIÓN OBLIGATORIA DEL 15 % DEL APROVECHAMIENTO URBANÍSTICO A FAVOR DEL AYUNTAMIENTO” atalean zehazten da aipatutako kopuru hori 411.981,14 eurokoa dela. Eta eranskin bat aurkeztu da kopuru hori justifikatzeko.

Indarreko araudiak, 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duenak, 34. artikuluan honakoa dio balorazio erregimenari buruz:

“Artículo 34. Ámbito del régimen de valoraciones.

1. Las valoraciones del suelo, las instalaciones, construcciones y edificaciones, y los derechos constituidos sobre o en relación con ellos, se rigen por lo dispuesto en esta Ley cuando tengan por objeto:

a) La verificación de las operaciones de reparto de beneficios y cargas u otras precisas para la ejecución de la ordenación territorial y urbanística en las que la valoración determine el contenido patrimonial de facultades o deberes propios del derecho de propiedad, en defecto de acuerdo entre todos los sujetos afectados.

(...)

2. Las valoraciones se entienden referidas:

a) Cuando se trate de las operaciones contempladas en la letra a) del apartado anterior, a la fecha de iniciación del procedimiento de aprobación del instrumento que las motive.

(...)”

Aurkeztu den balorazioak ondoko orubean saldutako etxebizitzaren eta garajeen salmenta prezioak hartzen ditu kontuan, egindako kalkulua justifikatzeko. Ontzat eman liteke.



- **UDALARENA IZANGO DEN ESPAZIO LIBREEN GUNEA**

Udalak lagapenez jasoko duen A finkako sarrera bermatze aldera, finka pribatuetan dagokion bide-zortasuna jaso da planoan eta 1 finkaren kargetan.

3. AZTERKETA JURIDIKOA:

2020ko abenduaren 4an udal aholkulari juridikoak ALDEKO txostena idatzi zuen. Eta onartzeko jarraitu beharreko prozeduraren inguruan honako hau jasotzen zuen:

“Onartzeko jarraitu beharreko prozedurari dagokionez

Prozedurari dagokionez, Birpartzelazio-proiektuaren aldaketak haren onarpenak izapide berari jarraitu beharko dio; beraz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 48.3 artikulua aplikatuz, Birpartzelazio-proiektu aldatua aurkeztu ondoren, Udalak hasieran onartu beharko du, jendaurrean jarri beharko du 20 egunez, eta eraginpeko jabeari jakinarazi beharko dio.

Kasu honetan, Ituntze-Batzorderik ez dagoela kontuan hartuta, Euskal Lurzoruaren Legearen 48.3 artikulua araberak, Udalak onartu beharko du hasierako izaerez.

Aurrekariak ikusirik eta Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 legeak, apirilaren 2koak, 21.1.j artikuluan araututakoarekin, 2019/1228 Alkatetza dekretuan Gobernu Batzordearen alde ezarritako eskuordetza eta, ondoren, 2019/2099 Alkatetza dekretuan Gobernu Batzordearen alde ezarritako eskuordetza bereganatuz, horiek guztiak kontuan izanik, Birpartzelazio proiektuaren hasierako onspena Alkatetzari dagokio.”

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Behin betiko onspena ematea Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 6.1 San Kosme eta San Damian azpiesparruko Birpartzelazio Proiektuaren Aldaketari, 2020ko urriaren 20an aurkeztutako dokumentazioarekin bat. Bista Alai SA enpresa lurjabe bakarrak aurkeztua da eta Ruiz del Cerro abogados-ek idatzia.



BIGARRENA.- Ebazpen honek ondorio hauek izatea:

- Nahitaez lagatzeko lursail guztiak dagokion administrazioari eskualdatzea. Lursail horiek jabari osoz eta kargarik gabe eskualdatuko zaizkio, eta lurzoru-ondarera bilduko dira edo plangintzan aurreikusitako erabilerei lotuko zaizkie.
- Partzela zaharrak berriein eraginkortasun osoz subrogatzea, betiere zein zeini dagokion argi utzi ondoren.
- Esleitu diren partzelak, hain zuzen, kasuan kasuko jarduketa-sistemak berekin dakartzan kargak betetzera eta gastuak ordaintzera benetan lotzea.

HIRUGARRENA.- Udalaren Lurzoru Ondareari eragitea hirigintza-jarduketatik eratorritako gainbalioetan erkidegoak duen partaidetzari dagokion eraikigarritasun-ehunekoa monetarizatu izanaren ondoriozko zenbatekoa, zeina Tolosako Udalari esleitu baitzaio Birpartzelazio Proiektuan.

LAUGARRENA.- Era berean, birpartzelazio-dokumentua Jabetza Erregistroan inskribatzea, ebazpen hau administrazio-bidean irmo bihurtu ondoren.

Epealdi horretan, hau da, hilabeteko epean, interesdunak hirigintza-eraikigarritasunaren % 15 —411.981,14 eurotan finkatu zena— ordaindu behar du udal honetako diruzaintzan. Gogorarazten da, ordainketa egin ezean, behin betiko onespeneraren akordioak ez duela efikaziarik izango.

BOSGARRENA.- Proiektua Gipuzkoako Foru Ogasuneko Katastroaren Bulegora bidaltzea, Jabetza Erregistroan inskribatu ondoren, hiri-izaerako ondasun higiezinaren gaineko zerga birpartzelazio-proiektuaren ondoriozko finken konfigurazio berrira egokitzeko.

SEIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta hasierako onespeneraren baldintza berberetan argitaratzea. Era berean, erabakiaren berri ematea Udaleko Kontuhartzailletza Sailari.

5. TOLOSAKO HIRI-GARRAIO KOLEKTIBOAREN ZERBITZU PUBLIKOAK KUDEATZEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN ESLEIPENA.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

kontratuaren xedea:	Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko zerbitzu-kontratua
Unitate sustatzailea:	Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetiko Azpisaila

ESKU8adbc683-3c67-4d23-b62b-f2ed4b41d33c



Espedientea:	2020SABI0001
--------------	--------------

II.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetiko Azpisaileko teknikariak 2019ko abenduaren 4an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion.

Bigarrena.- 2020ko ekainaren 23an Tokiko Gobernu Batzarrak, besteak beste, Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu-kontratuaren espedientea onartu zuen eta hasiera eman zitzaion lizitazioari.

Hirugarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, RJ AUTOCARES, S.L., TOLOSALDEA BUS, S.L., AUTOBUSES CUADRA, S.A. eta TRANSITIA, S.L.k eta AUTOCARES URPA, S.L.k eratu beharreko ABEEa (UTE TOLOSAKO AUTOBUSA) enpresek aurkeztu zituzten eskaintzak.

Laugarrena.- Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, 2021eko otsailaren 2an kontratazio-mahiak hau proposatu zion kontratazio-organoari: Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko zerbitzu-kontratua AUTOBUSES CUADRA, SA enpresari esleitzea, honako prezio honetan: nagusia 1.502.921,25 euro eta BEZa 150.292,125 euro; guztira, 1.653.213,375 euro.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Lizitazio-egintzaren baliozkotasuna deklaratzeko.

	CUADRA
Eskainitako prezioa	1.502.921,25
<i>baja %</i>	<i>0,29</i>
Puntuak (45)	41,83

BIGARRENA.- Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu-kontratua AUTOBUSES CUADRA, SA enpresari adjudikatzea, honako baldintza hauetan, kontratuaren bost urtetarako:

Autobusaren epea	hilabete 1
<i>Puntuak (20)</i>	<i>20</i>

Erantzuteko denbora	10 ordu erdi
<i>Puntuak (5)</i>	<i>5</i>

Prezioa: nagusia 1.502.921,25 euro, BEZa 150.292,13 euro; prezioa, guztira, 1.653.213,38 euro.

Autobus elektrikoa zerbitzura atxikitze epea: hilabete.



Ibilgailuen mantentze-lan zuzentzaileen barruan erantzuteko denbora: bost ordutan murrizten du bost orduko gehieneko epea. Beraz, erantzuteko denbora berehalakoa izan beharko da.

HIRUGARRENA.- Ezartzea kontratuaren iraupena bost urtekoa izatea kontratua sinatzen den momentutik kontatzen hasita.

LAUGARRENA.- Enpresari eskatzea bete ditzala lizitazioa arautzen duten pleguetan xedatutakoa eta hartutako konpromisoa, inolako erreserbarik gabe.

BOSGARRENA.- Ohartaraztea ezen, SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurso berezia jarri ahal izango denez, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen duelako, 153. artikuluan xedatutakoari jarraituz, kontratua ezingo dela formalizatu, adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaleei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

SEIGARRENA.- Erabaki horiek jakinaraztea Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetikoko Azpisailari, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

6. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

- 2021/0057 DEKRETUA: 2021/58 ETA 2020/59 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2021/0057 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Saileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatezaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2020ko honako faktura-zerrenda hauek:

58. zenbakia duena, 206.069,32 eurokoa.

59. zenbakia duena, 55.716,84 eurokoa.



Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- *Onartzea faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

58. zenbakia duena, 206.069,32 eurokoa.

59. zenbakia duena, 55.716,84 eurokoa.

BIGARREN.- *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

*Nire aurrean,
idazkaria*

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

- 2021/0069 DEKRETUA: 2021/60 ETA 2020/61 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2021/0069 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, *Ogasun eta Finantza Administrazioiko Saileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.*

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2020ko honako faktura-zerrenda hauek:



60. zenbakia duena, 7.693,95 eurokoa.

61. zenbakia duena, 2.180 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

60. zenbakia duena, 7.693,95 eurokoa.

61. zenbakia duena, 2.180 eurokoa.

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

- **2021/0121 DEKRETUA: 2021/62**

Idazkariak 2021/0121 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Saileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.



21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2020ko honako faktura-zerrenda hau:

62. zenbakia duena, 9.236,72 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

62. zenbakia duena, 9.236,72 eurokoa.

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

- **2021/0120 DEKRETUA: 2021/63, 2020/64 ETA 2020/65 FAKTURA ZERRENDAK.**

Idazkariak 2021/0120 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Saileko zinegotzi delegatua, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.



21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2020ko honako faktura-zerrenda hauek:

63. zenbakia duena, 504.144,95 eurokoa.

64. zenbakia duena, 7.223,36 eurokoa.

65. zenbakia duena, 127.598,85 eurokoa

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LENEHIK.- Onartzea faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

63. zenbakia duena, 504.144,95 eurokoa.

64. zenbakia duena, 7.223,36 eurokoa.

65. zenbakia duena, 127.598,85 eurokoa

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

- 2021/130 DEKRETUA: 2021/66 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2021/0130 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Saileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen



21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta Alkatezaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2020ko honako faktura-zerrenda hauek:

66. zenbakia duena, 172.148,55 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LENEHIK.- Onartzea faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

66. zenbakia duena, 172.148,55 eurokoa.

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 12:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021IGBA0002-2021-02-09 Gobernu batzarra akta/2021-02-09 Gobernu